

## MARTXA BADATOR!



### aurrekariak:

#### **1995- QUEBEC**

Emakumeak pobrezia eta indarkeriaren kontra.  
6000 emakume talde eta 161 munduko herrialdeen atxikimendua.

#### **1998- CANADA**

65 herrialdeetako emakumeen bilera.  
Indarkeria eta pobrezia kontrako aldarrikapen plataforma.

#### **2000- NAZIOARTEKO LEHENENGO EKIMENA**

Martxoaren 8tik eta urriaren 17a bitarte, nazio zein nazioarte mailan ekimenak burutu ziren  
150 herrialdeetako emakumeak beren eskubideen alde mobilizatu ziren

#### **2005- NAZIOARTEKO BIGARREN EKIMENA**

Martxoaren 8an Brasiletik emakumeen bigarren martxa abiatu zen

Jendartearentzako munduko gutuna mundu mailan eman zen eztabaida baten ondorioz onartu genuen; askatasunean, bakean, elkartasunean, parekidetasunean eta justizian oinarritutako gutuna.

Elkartasun oihala, mundu osoa zeharkatu zuen lekukoa izan zen.

Herrialde bakoitzak oihal zatian amestutako mundua marraztu zuen

Erreleboarekin batera, oihal zatiak batzen joango dira

Munduko emakumeon gutunaren irukapen anitza izan zen

# martxan jarraitzen dugu

Euskal Herritik mundura, mundutik Euskal Herrira kaleak morez margotzen jarraituko dugu. Aldarrikapenez betea dator aurtengo, 2010eko, Emakumeen Mundu Martxa. Hasierako urratsak sendotu asmoz, martxoaren 8an Iruñean hasi eta martxoaren 13an Iruñean bertan amaituko den martxan Euskal Herriko emakumeok ere badugu zer aldarrikatu. Bidezkoa den eta bakean bizi den jendartea lortzeko, ezinbestekoa dugu berdintasuna, askatasuna eta elkartasuna oinarri dituen mundu bat izatea. Bigarren mailako herritar izan nahi ez dugulako, eta bizitzako arlo guztietan gure parte-hartzea kontuan hartzea nahi dugulako, emakumeen eskubideen gutuna sortu genuen Euskal Herrian lan egiteko tresna gisa. Aurtengoan, gutuna eskuan hartuta, gure eskubideak aldarrikatzeko parada bikaina dugu martxoan zehar egingo dugun martxan. Aurtengoan lau jarduera eremu izango ditugu: emakumeon aurkako indarkeria, eskubide sexual eta erreproduktiboak, prekarietatea eta elikadura subiranotasuna.

Emakumeon aurkako indarkeria, gure jendartean gertatzen den eskubide urraketa larriena dugu, emakume izateagatik jasaten dugun biolentzia oroz ari gara: sexu erasoak, prostituzio behartua, lantokietako sexu-jazarpena, jipoiak, emakumeen erailketak,

etb. Emakumeen aurkako indarkeriak patriarkatuan du bere oinarria, zentzu honetan, sistema kapitalista patriarkala irauli eta bestelako jendarte eredu baten aldeko aldarria egiten dugu. Eskubide urraketa honen aurrean, ezin ahantzi behar dugu botere publikoek gaiaren erradikazioan duten erantzunkizuna.

Emakumeon eskubide sexual eta erreproduktiboak bermatu daitezten aldarrikatzen dugu. Egun, oraindik, sexu harreman askeak eraikitze mugak dauzkagu, norekin, noiz eta nola izan nahi ditugun aukeratzeko askatasunik ez baitugu. Horrez gain, amatasuna goratzen jarraitzen duen jendartean bizi gara, oraingoan ere, ama izan edo ez izan eta izatekotan nola izan nahi dugun aske erabakitzea mugatzen zaigu. Amatasunaren gainean aske erabakitze mugatzen den eskubide bat mugatua baitugu: abortatzeko eskubidea, alegia.


Prekarietateak. Sexuen araberako lan banaketan oinarritzen den eredu ekonomiko neoliberal eta patriarkala dago egun indarrean. Banaketa honen eraginez, gizonezkoak lan merkatuan kokatzen diren bitartean, emakumeok sozialki gutxietsitako eta ordaindu gabeko lanak egitera baztertu gaituzte, etxeko esfera pribatura, alegia. Honek, emakumeok gure bizitza propioa garatzeko dugun eskubide ahalmena zeharo mugatzen du, autonomia ekonomiko eta eskubide



sozialetan jasaten dugun diskriminazioaren eraginez. Gure lana ez da aintzat hartzen; ez politikan, ez ekonomian, ez erakundeetan erakundeen aldetik, eta ezta gizonen aldetik ere. Horregatik, gure ikusezintasuna gaingituz lan duin eta bizi duin bat izateko eskubidea aldarrikatzen dugu.

Elikadura subiranotasuna. Herriek beren nekazaritza eta elikadura politiken gainean erabakitzeko duten eskubidea da. Esparru honetan, emakumeok egindako lana eta ekarpena diru poltsa komunera gehitzen da. Famili zapalkuntzak eragin zuzena du horretan, eta azkenean, jabetza famili buruei dagokie, gizonezkoiei, alegia. Beraz, emakumeoi ez digu etekinik ematen lan horrek; ez maila pertsonalean, ez ordain sarietan, ez eskubide sozialetan, ez eta identitate pertsonalean ere. Emakume nekazariak zein abeltzainek berezko dituzten lanei, etxeko lanak, etxearen zaintza eta haur zein adinakoen zaintza gehitu behar zaizkie. Denak ere ikusezinak eta doakoak diren lanak. Emakumeok, gizarteak biziraupenerako beharrezkoak dituen lanen %80a egiten dugu. Baina, lan hori ez zaigu errekonozitzen jendartearen antolaketa eta pertsona guztien bizi baldintzen ongizaterako beharrezko aktibitate gisa.

2010 arrazoi ditugulako martxan jarraitzeko!





# MIRIAM NOBRE

## Emakumeen Nazioarteko Mundu Martxaren Idazkaritzako Koordinatzailea



### **1.- Emakumeen Mundu Martxa inizatiba sortu zenetik 10 urte igaro diren honetan, zer azpimarratuko zenuke 10 urte hauetatik eta bi mundu martxetatik?**

Denbora honetan zehar 50 herrialde baino gehiagotan oinarritzko taldeak antolatzen dituen mugimendu feminista bezala eratu gara; emakumeen autonomia ekonomikoaren aldeko ekintzen herri mobilizazioa lehenetsiz, emakumeenganako biolentziaren aurka eta bakea eta desmilitarizazioaren aldeko mugimendu bezala.

Ez da nahikeria nazioarteko eszenatokian pertsonak feminismoari buruz duten pertzepzioa aldatu dugula esatea. Baina 1990eko urteetan feminismoaren irudia gender mainstreamen adituek ordezkatzeko zuten; gaien araberrako sareetan banatuak zeuden, Nazio Batuetako Konferentzietan lobbyak egiten zituzten eta nolabait, berrikuntzak unibertsitateetako genero ikerketa zentroetatik itxaroten zituzten. Gure asmoa, globalizazioaren aurkako mugimenduaren parte den feminismo bat eraikitzea eta berau ikusgai egitea da; jendarte patriarkal, kapitalista eta arrazista baten markoetan emakume guztion bizitza aldatzea ezinezkoa dela badakigun arren, autodeterminazioaren alde borrokan ari diren emakumeak dauden edozein tokian eraikitzen den feminismoa da gurea.

### **2.- Mundu mailako inizatiba bateratu gutxi dago, bat gurea da, iparraldeko eta hegoaldeko emakumeena, zerk ezaugarritzen gaitu?**

Lortu nahi dugun munduak batzen gaitu, eta

bide horretan ahal den neurrian bestelako mundu bat eraikitzen hasiak gara. Hori dela eta, 2005ean Emakumeen Mundu Karta idazteko erronka hartu genuen; herri, nazio eta nazioartean osatutako herri taldeetan bildu eta tailerren bitartez, ateratako ondorioetatik zein sintesietatik osatu genuen karta.

Aniztasuna balio bat da guretzat, izan ere, esperientzia eta kultura politika desberdinetatik gatozen emakumeak gara. Eztabaidatzen dugu, akordioak eratzen ditugu eta azkenean komunean emakumeok ongi bizi gaitezen nazio mailan garaipenak lortu eta mantentzeko gai izango den nazioarteko mugimendu bat eraikitzeko prestutasuna dugula jabetzen gara.

### **3.- 2010eko martxan zenbat emakume taldek hartzen dute parte? Urte hauetan zehar egon al da bilakaera kuantitatibo/kualitatiborik?**

2000. urtean buruturiko Martxak hainbat herrialde mobilizatu zituen kanpaina bat izan zen. Jarraitzea erabaki genuenean, baina, talde guztiek ez zuten aurrera jarraitu nahi izan, eta beste batzuk aldiz, bidean batu dira. Egun, gure buletina 4.500 taldek baino gehiagok jasotzen dute, baina Martxaren eraketan dagoen inplikazioa oso anitza da.

“Asmoa, globalizazioaren aurkako mugimenduaren parte den feminismo bat eraikitzea eta berau ikusgai egitea da”

Oso baikorrak diren garapenak badaude; herrialde afrikar anglofonoetako Martxaren hazkundera, Latinoamerikan Martxaren politikaren garrantzia, edo Martxaren indartzea eskualdeetako hitzarmenetan.

#### **4.- Martxak munduko foru sozialetako (MFS) prozesuetan ere parte hartzen du, honelako jazoerak nola baloratzen ditu?**

Martxaren historia MFSen prozesuen historiarekin nahasten da. Eremu honetan nabariak izatea lortzen dugu; gure azterketa eta praktikekin identifikatzen diren emakume taldeekin kontaktuak ezartzen ditugu eta bestelako mugimendu sozialekin aliantzak eraikitzen ditugu.

Eremu hauek gure itxaropenetatik abiatuta baloratzen baditugu ere, kontua foroek egungo koiunturaren erronkei erantzutean nola laguntzen gaituzten da (borroka soziala eta pobreziaren kriminalizazioa, militarizazioa, esplotazioaren hazkundera sistemaren krisiaren irtenbide kapitalista bezala,...). Guretzat, antolakuntzak indarra eraikitzea dakar, akordioak egitea eta borroka prozesuak abiaraztea; azalpenak soilik norberaren kontsumorako ideiei moduan gelditu ez daitezzen, alegia.

#### **5.- Iaz klima aldaketari buruzko kongresua ospatu zen Copenhaguen, Emakumeen Mundu Martxatik zein aldarrikapen eraman zenituen?**

Enpresa transnazionalen estrategietan eta natura, lurralde eta emakumeen gorputzaren jabetza/dominazio diskurtso ez menperatzaileen artean aldagai komun ugari ikusten ditugu. Horrez gain, natura eta emakumeon denbora bukaezina diren baliabide gisa erabiltzen dira, honela, kapitalismoaren krisi ziklikoetan lukrotasek iraunkor eta inmune jarrai dezaten.

Klimari buruzko Parteen Konferentzien (“COP”) negoziazioa, eredu kapitalista sakontzen duten

eta herrietako alternatiben arteko irtenbide faltsuen tirabira une bat da. Gure mugimenduek justizia klimatikoaren alde eraikitzen dituzten alternatiba eta erresistentziak baieztatuzko egon ginen Copenhaguen.

#### **6.- Martxoko bigarren astean munduko herri desberdinetan Emakumeen Mundu Martxa egingo da, baina horrez gain, urria arte bi topaketa garrantzitsu daude bata Turkian eta bestea Kongon. Zein helburu izango dute bi jazoera hauek? Azaldu zenezake zein izango den hauen oinarria?**

Asiako eskualde ekintzak ditugu, Filipinetan, maiatzean; Europakoak, Turkian, ekainean; Ameriketakoak, Kolonbian abuztuan. Ekintza hauetan lau ekinbideetako azterketa eta eskaerak berreskuratzen ditugu eskualde ikuspuntu baten markoan. Adibidez, Europan, Istambuleko ekintzaz gain Balkanetako zazpi herrialdeetatik igaroko den karabana prestatzen dugu herriak batzen dituen eta emakumeen trafikoa bezalako arazo larriak gainditzeko dituen Europa ireki bati buruz hitz egiteko; Kolonbian, berriz, base militar estatubatuarren aurrean ekintza bat egingo dugu.

Bukavun (Kongoko Errepublika demokratikoa), Sud Kivu, guda arma bezala emakumeen aurkako biolentzia salatuzko eta gatazka konponbideetan eskualdeetako emakume erakundeen protagonismoa indartzeko elkartzeko gara.

Eskualdearen desmilitarizazioa posible dela erakustea espero dugu eta “MONUC”en (“Misión de las Naciones Unidas en RDC”) irteeraren eztabaida mahai gaineratu nahi dugu.

Bukavuko ekintza gure herrialdeetan egingo diren ekintzekin osatuko da, MONUCen erretiratzearen eskaerarekin hau osatzen duten herrialdeei, edo mineral, bio aniztasuna edo armen salmentaren kontrolarekin gatazkan onuradun diren transnazionalen aurkako protestekin adibidez.

# Euskal Herriko emakumeen mundu martxa

## MARTXOAK 8,

19:30- IRUÑEA- Euskal Herria morez tintatuko dugu!

## MARTXOAK 9,

ALTSASU, LIZARRA, AGURAIN,

GASTEIZ- Eskubide sexual eta erreproduktiboak.

## MARTXOAK 10,

10:00- GASTEIZ-ko Parlamentuan kontzentrazioa,

LAUDIO, EZKERRALDEA, ESKUMALDEA,

BILBO - Prekarietatea, ZORNOTZA.

## MARTXOAK 11,

ERMUA, UROLA KOSTA, BEASAIN, TOLOSA,

DONOSTI - Indarkeria, ORERETA.

## MARTXOAK 12,

IRUN, HAZPARNE, BAIONA - Elikadura burujabetza,

LEITZA.

## MARTXOAK 13,

IRUÑEA. 11:00etan, EKIMEN NAZIONALA.

# urratsak emanez



Banoa. Bagoaz. Bazatoz?

Banoa, hankak martxan, urratsez urrats, mundu borobil honi buelta txiki bat eman nahiean.

Bagoaz mundua iraultzera, oinez, urrats txikiak gehituz, oinez eta ohiuka, gure aldarrikapenak asfaltoan eta airean utziz, aztarnak utziz.

Eta bidean seinalatuko ditugu, katez lotu nahi gaituzten horiek: Prekarietatera kondenatzen gaituzten enpresak.

Ama lurra eta hau duintasunez landu eta beronez elikatzea debekatzen diguten multinazionalak.

Eguneroko ogi ditugun, bortxatzaile, baboso eta handiputzak.

Gure gorputzaren gaineko erabakiaz jabetu nahi duten instituzio moral eta etikoak.

Euren gainetik igaroko gara:

Emakumeek bizitzeko lan egin nahi dugulako, lurra landu elikatzeko, gure gorputzaren jabe izan eta gu geu maitatu inoren menpeko izan gabe.

Ez dugulako erasotzailerik nahi, ez multinazionalik, ez elizarik, ez instituzio patriarkalik.

Mundu justuago bat nahi dugulako, justizia eta eskubideak geureak ere badirelako.

Makinaria guztia jarriko dugu martxan, feministon indarra kaleratuko dugu, beste herriein elkartasunean.

Ni banoa, bagoaz. Eta zu, ba al zatoz???

GOAZEN BADA!!!

